| AKTA, ARRETA SOZIOSANITARIOKO EUSKAL KONTSEILUAK 2017KO AZAROAREN 27AN EGINDAKO BILERARENA | ACTA DE LA REUNIÓN DEL CONSEJO VASCO DE ATENCION SOCIOSANITARIA 27 de noviembre 2017 |
|---|---|
| **EGUNA:** 2017ko azaroak 27<br>**TOKIA:** EUSKO JAURLARITZA, LAKUA II (2. aretoa)<br>**HASIERA-ORDUA:** 16:15<br>**AMAIERA-ORDUA:** 18:08 | **DÍA:** 27 de noviembre de 2017<br>**LUGAR**: GOBIERNO VASCO, LAKUA II (sala nº2)<br>**HORA DE COMIENZO**: 16:15 horas.<br>**HORA DE FINALIZACIÓN**: 18:08 horas. |
| **BERTARATUAK:** | **ASISTENTES:** |
| **BATZORDEKO PRESIDENTEA:** Beatriz Artolazabal Albeniz andrea, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua. | **PRESIDENTA:** Dña. Beatriz Artolazabal Albeniz, Consejera del Departamento de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco. |
| **KIDEAK:** | **MIEMBROS:** |
| Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema ordezkatuz: | En representación del Sistema Vasco de Servicios Sociales: |
| - Lide Amilibia Bergaretxe andrea, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Politiketako sailburuordea.<br>- Marian Olabarrieta Ibarrondo andrea, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria.<br>- Isabel Sanchez Robles andrea, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako foru-diputatua.<br>- Maite Peña López andrea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako foru-diputatua.<br>- Iñigo Pombo Ortiz de Artiñano jauna, Bilboko Udaleko Gizarte Ekintzako zinegotzia, EUDEL ordezkatuz. | - Dña. Lide Amilibia Bergaretxe, Viceconsejera de Políticas Sociales del Gobierno Vasco.<br>- Dña. Marian Olabarrieta Ibarrondo, Diputada Foral de Servicios Sociales de la Diputación Foral de Álava.<br>- Dña. Isabel Sánchez Robles, Diputada Foral de Acción Social de la Diputación Foral de Bizkaia.<br>- Dña. Maite Peña López, Diputada Foral de Política Social de la Diputación Foral de Gipuzkoa.<br>- D. Iñigo Pombo Ortiz de Artiñano, Concejal de Acción Social del Ayuntamiento de Bilbao, en representación de EUDEL. |
| Euskal Osasun Sistema ordezkatuz: | En representación del Sistema Vasco de Salud: |
| - Jon Darpón Sierra jauna, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko kontseilaria. | - D. Jon Darpón Sierra, Consejero del Departamento de Salud del Gobierno Vasco. |

- Iñaki Berraondo Zabalegui jauna, Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuordea.
- Fátima Ansotegi Elordi andrea, Administrazio eta Finantzaketa Sanitarioko sailburuordea.
- María Jesús Gemma Mugica andrea, Osakidetzako zuzendari nagusia.
- Andoni Arcelay Salazar jauna, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Asistentzia Sanitarioko zuzendaria.
- Jose Antonio de la Rica Giménez jauna, koordinatzaile soziosanitarioa. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua.

**IDAZKARIA:** Emilio Sola Ballojera jauna, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen zuzendaria.

Gonbidatu moduan bertaratu dira:

- Miren Saratxaga andrea, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen zuzendaria eta Kontseiluko ordezkoa Aldundi horren izenean.
- Sergio Murillo Corzo jauna, Bizkaiko Foru Aldundiko Autonomia Pertsonalaren Sustapenerako zuzendari nagusia eta Kontseiluko ordezkoa Aldundi horren izenean.
- Txaro Rodrigo Montalvo andrea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendekotasunaren Arretako zuzendari nagusia eta Kontseiluko ordezkoa Aldundi horren izenean.
- Guillermo Viñegra jauna, Osasun Saileko aholkularia.
- Lourdes Zurbanobeaskoetxea Laraudogoitia andrea. Bizkaiko Foru Aldundiko Ebaluazio eta Orientazio Zerbitzuko burua.
- Dorleta Goiburu Muruaga andrea, EUDELeko teknikaria.

- D. Iñaki Berraondo Zabalegui, Viceconsejero de Salud del Gobierno Vasco.
- Dª. Fátima Ansotegi Elordi. Viceconsejera de Administración y Financiación Sanitarias.
- Dª. María Jesús Gemma Mugica, Directora General de Osakidetza.
- D. Andoni Arcelay Salazar, Director de Asistencia Sanitaria de Osakidetza- Servicio Vasco de Salud.
- D. Jose Antonio de la Rica Giménez, Coordinador Sociosanitario. Osakidetza-Servicio Vasco de Salud.

**SECRETARIO:** D. Emilio Sola Ballojera, Director de Servicios Sociales del Gobierno Vasco.

Asisten en calidad de personas invitadas:

- Dª. Miren Saratxaga Directora de Servicios Sociales de la Diputación Foral de Álava y suplente en el Consejo por parte de esa Diputación.
- D. Sergio Murillo Corzo, Director General de Promoción de la Autonomía Personal de la Diputación Foral de Bizkaia y suplente en el Consejo en representación de la citada Diputación Foral.
- Dª. Txaro Rodrigo Montalvo, Directora General de Atención a la Dependencia de la Diputación Foral de Gipuzkoa y suplente en el Consejo por parte de dicha Diputación.
- D. Guillermo Viñegra, Asesor del Departamento de Salud.
- Dña. Lourdes Zurbanobeaskoetxea Laraudogoitia. Jefa de Servicio de Valoración y Orientación de la Diputación Foral de Bizkaia.
- Dña. Dorleta Goiburu Muruaga, técnica de EUDEL.

## GAI-ZERRENDA

1. Aurreko bileraren (2017/04/12) akta onartzea.
2. Arreta soziosanitarioko lehentasun estrategikoak aurkeztea eta onartzea (2017-2020).
3. Historia soziosanitarioa garatzeko plan funtzionala.
4. Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren irudi korporatiboa. Atari soziosanitarioa.
5. Xede-kolektiboei eragiten dieten sektore anitzeko estrategiak eguneratzea.
   a. Arreta goiztiarra
   b. Etxerik gabeko pertsonak
   c. Osabide eta e-rezeta, adinekoen eta desgaituen egoitzetan.
6. Kontseiluko presidentetza eta idazkaritza aldatzea.
7. Galde-eskeak.

---------------------------------------------

-------------------------------------------

## ORDEN DEL DÍA

1. Aprobación del acta de la reunión anterior (12/04/2017)
2. Presentación y aprobación de las Prioridades estratégicas en atención sociosanitaria 2017-2020.
3. Plan funcional para el desarrollo de la historia sociosanitaria.
4. Imagen corporativa del Consejo Vasco de atención sociosanitaria. Portal sociosanitario.
5. Actualización de estrategias multisectoriales que afectan a colectivos diana:
   a. Atención temprana
   b. Personas en situación de sinhogarismo
   c. Osabide y e-rezeta en residencias de personas mayores y personas con discapacidad.
6. Cambio de presidencia y secretaría del Consejo.
7. Ruegos y preguntas.

-----------------------------------------

-----------------------------------------

Aipatu pertsonak bertaratuta, hasiera eman zaio bilerari.

Con la presencia de las personas citadas se da inicio a la reunión.

**1. Aurreko bileraren (2017/04/12) akta onartzea.**
Ez da alegaziorik edo aitzakiarik aurkeztu. Onartu egin da.

**1. Aprobación del acta de la reunión anterior (12/04/2017)**
No se presentan alegaciones u objeciones a su redacción. Queda aprobada.

**2. Arreta soziosanitarioko lehentasun estrategikoak aurkeztea eta onartzea (2017-2020).**

**2. Presentación y aprobación de las Prioridades estratégicas en atención sociosanitaria 2017-2020.**

Presidenteak lehenik José Antonio De la Ricari eta ondoren Lourdes Zurbanobeaskoetxeari hitza eman, eta lehentasun horiek aurkeztu dituzte.

La presidenta cede la palabra en primer lugar a José Antonio De la Rica y posteriormente a Lourdes Zurbanobeaskoetxea, quienes proceden a exponer dichas prioridades.

6 lehentasun soziosanitario dira, eta haien barruan 17 proiektu estrategiko daude.

En total, se trata de 6 prioridades sociosanitarias, que contienen en conjunto 17 proyectos estratégicos.

Akta honen eranskinean doa lehentasun estrategikoei buruzko aurkezpena

Se adjunta en el anexo que acompaña a la presente acta la presentación

PowerPointean.

Aurkezpena amaitzean, presidenteak adierazi du 2018ko urtarrilaren 26an egingo dela arreta soziosanitarioko lehentasun estrategiko horien (2017-2020) aurkezpen publikoa, Miramonen.
Jarraian, hizketarako txandari ekin zaio, lehentasun horiek onartu aurretik.
Maite Peñak adierazi du bere balorazioa oso positiboa dela, bai egiturari bai edukiari dagokionez, eta 3 alderdi azpimarratu ditu gizarte-zerbitzuen esparrua sendotzeko: gobernantza kolaboratiboa, baliabide soziosanitarioen katalogoa eta finantzaketa. Aipatu du, halaber, oso egokia iruditzen zaiola lehentasun estrategikoen aurkezpen publikoa egitea.
Bertaratu diren eta boto-eskubidea duten pertsonek aho batez onartu dituzte lehentasunak.

efectuada en formato power point sobre las prioridades estratégicas.

Al concluir la exposición, la presidenta indica que el día 26 de enero de 2018 tendrá lugar, en Miramón, la presentación pública de esas prioridades estratégicas en atención sociosanitaria 2017-2020..
Acto seguido, abre una ronda de intervenciones previa a someter las prioridades presentadas a aprobación.
Maite Peña manifiesta que su valoración es muy positiva, tanto en lo que concierne a la estructura como al contenido, y resalta 3 aspectos para poder consolidar el ámbito de los servicios sociales: la gobernanza colaborativa, el catálogo de recursos sociosanitarios y la cuestión de la financiación. Asimismo, señala que le parece muy oportuna la presentación pública de las prioridades estratégicas.
Se aprueban las prioridades por unanimidad de las personas presentes con derecho a voto.

**3. Historia soziosanitarioa garatzeko plan funtzionala.**

José Antonio De la Ricak adierazi duenez, uneotan RAI-CA ebaluazio-tresna bultzatzen eta ezartzen ari dira, talde bultzatzailea eratuta dago, eta orain finantzatzen duguna historia soziosanitarioaren plan funtzionala da, eta aparte eta ondoren joango da historia bera finantzatzea. Everis omen da erakunde aholkularia.

María Jesús Mugicak galdetu du ea ez den hirugarren aplikazio informatiko bat beharko, Osabideri eta gizarte-zerbitzuei gehitzeko, Gizartekoa nahiz foralak.

José Antonio De la Ricak erantzun du osasunari eta gizarte-zerbitzuei buruzko datu-biltegi bat eduki nahi dela. Hortik sortuko omen da Banakako Arreta Plana esparru soziosanitarioan.

**3. Plan funcional para el desarrollo de la historia sociosanitaria.**

José Antonio De la Rica expone que en estos momentos se está impulsando e implementando la herramienta de valoración Inter RAI-CA, que ya está constituido el grupo impulsor y que lo que al respecto financiamos ahora es el Plan funcional de la historia sociosanitaria, y que otra cosa aparte y posterior será la financiación de la propia historia. Aclara también que la entidad consultora es Everis.

Mª. Jesús Mugica pregunta acerca de si no hará falta un tercer aplicativo informático, a añadir a Osabide y al de los servicios sociales, sea Gizarte o los forales.
En respuesta, José Antonio De la Rica indica que de lo que se trata es de contar con un repositorio de datos de salud y de servicios sociales. Y que de ahí surgirá el Plan de Atención Individualizado en el marco sociosanitario.

| | |
|---|---|
| María Jesús Mugicak adierazi duenez, datuak automatizatzea lortu behar da. | Mª. Jesús Mugica expresa que se debe conseguir que los datos estén automatizados. |
| Jon Darpónek dioenez, 3 foru-aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren partaidetzako erakunderen bat egon behar du, hari gomendioak egiteko. | Jon Darpón afirma que debe haber alguna entidad participada por las 3 diputaciones forales y por el Gobierno Vasco, a la que hacer una encomienda. |
| Maite Peñak galdetu du ea lana teorikoa soilik izango den, eta José Antonio De la Ricak ezetz erantzun dio. | Maite Peña pregunta a ver si el trabajo va a ser únicamente teórico, a lo que José Antonio De la Rica responde que no. |
| Beatriz Artolazabalek adierazi du mugarri soziosanitarioak lortu ditugula –hala nola Osabide eta e-Rezeta–, eta historia soziosanitarioa dela hurrengo erronka. | Beatriz Artolazabal expresa que ya hemos conseguido hitos sociosanitarios tales como Osabide y la e-Rezeta, y que este de la historia sociosanitaria es el reto siguiente a superar. |
| **4. Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseiluaren irudi korporatiboa. Atari soziosanitarioa** | **4. Imagen corporativa del Consejo Vasco de atención sociosanitaria. Portal sociosanitario.** |
| José Antonio De la Ricak atariari buruzko PowerPointa aurkeztu du, buletin soziosanitario batekin osaturik, eta bertaratu diren pertsonak animatu ditu atarian sartu eta hango edukiak erabiltzera. | José Antonio De la Rica presenta el power point sobre el portal, que se complementa con un boletín sociosanitario, y anima a las personas presentes a entrar en el portal y hacer uso de sus contenidos. |
| **5. Xede-kolektiboei eragiten dieten sektore anitzeko estrategiak eguneratzea** | **5. Actualización de estrategias multisectoriales que afectan a colectivos diana** |
| Lide Amilibiak aurkeztu ditu puntu honen barruko hiru estrategietatik lehen biak, Arreta Goiztiarrari eta Etxerik Gabeko Pertsonei buruzkoak. | Lide Amilibia presenta las dos primeras de las tres estrategias incluidas en este punto, la concerniente a Atención Temprana y la de Personas Sin Hogar. |
| <u>Arreta Goiztiarra</u> | <u>Atención Temprana</u> |
| Arreta Goiztiarrari dagokionez, titulu, azterlan eta eskumenei buruzko dekretu bat egingo omen da, 2017ko urriaren 27ko erabakian oinarrituz. | En cuanto a la Atención Temprana, señala que se va a elaborar un decreto sobre el catálogo de títulos, estudios y competencias, y que se hará a partir del acuerdo alcanzado al respecto con fecha 27 de octubre de 2017. |
| Gainera, arreta goiztiarrean gastatutakoa aztertzeko lantalde bat sortuko omen da, sistema bakoitzeko bat: osasuna, gizarte-zerbitzuak eta hezkuntza. | Además, indica que se va a crear un grupo de trabajo para analizar el gasto en atención temprana por cada uno de los tres sistemas implicados: salud, servicios sociales y educación. |

Maite Peñak gogora ekarri du aurkezpenean erakutsitako diagrama bat –0 eta 6 urte arteko arreta goiztiarrean sistema bakoitzaren esku-hartzeak izandako eboluzioari buruzkoa–, eta ez omen dago ados gizarte-zerbitzuen kurbarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiaren kasuan arreta ez baita 3 urtetik aurrera hain nabarmen murrizten, baizik eta pixkanaka.

Maite Peña se refiere a un diagrama expuesto en la presentación, que hace referencia a la evolución de la intervención de cada uno de esos tres sistemas en materia de atención temprana entre 0 y 6 años, para manifestar que no está de acuerdo con la curva correspondiente a servicios sociales ya que en el caso de la Diputación Foral de Gipuzkoa la atención no disminuye de manera tan significativa a partir de los 3 años, sino que lo hace de forma contenida.

Isabel Sánchez Roblesek eskatu du arreta goiztiarra 6 urtetik aurrera luzatzea, eta Bizkaian ba omen dago hori eskatzen ari den guraso-plataforma bat.

Isabel Sánchez Robles pide que la atención temprana se extienda más allá de los 6 años y comenta que en Bizkaia ya existe una plataforma de padres que lo está demandando.

Jon Darpónek azpimarratu duenez, Osakidetzaren esku-hartzeari buruzko kurba ere ez dator bat aurkeztutako grafikoarekin, arreta ez baita hainbeste jaisten adinean aurrera joan ahala.
Isabel Sánchez Roblesen iritziz arazoa Hezkuntzan dago, ez baitira beti ematen beharrezko laguntzak.

Jon Darpón incide en que tampoco la curva de intervención desde Osakidetza se corresponde con la del gráfico expuesto, ya que tampoco desde Salud la atención baja tanto conforme avanza la edad.
Isabel Sánchez Robles opina que el problema radica en Educación, desde donde no siempre se dan los apoyos necesarios.

Lourdes Zurbanobeaskoetxeak dioenez, Bilboko ESIan aztertzen ari dira nola egin arreta horren trantsizioa.

Lourdes Zurbanobeaskoetxea aclara que en OSI Bilbao están estudiando el tema de ver cómo se hace la transición de esa atención.

Marian Olabarrietaren esanetan, Arabako Foru Aldundian bikoiztu egin dute arreta goiztiarreko aurrekontua, eta jakin nahi du noiz edukiko duten finantzaketa egokia eta adostua. Galdetu du, halaber, aurkeztutako legez besteko proposamenak zertan eragingo dion arreta goiztiarreko finantzaketari.

Marian Olabarrieta señala que en la Diputación Foral de Álava han duplicado el presupuesto en atención temprana y quiere saber cuándo van a tener la financiación adecuada y consensuada. También pregunta a ver en qué va a influir la Proposición No de Ley presentada sobre la financiación de la atención temprana.

Lide Amilibiak erantzun du legez besteko proposamen horrek ez duela eraginik. Finantzaketari dagokionez, foru-aldundiek eta lantaldean ariko diren pertsonek emandako datuak biltzen ari dira.

Lide Amilibia responde que esa Proposición No de Ley no influye. En cuanto a la financiación, se están recogiendo datos aportados por las diputaciones forales y de las personas que van a participar en el grupo de trabajo.

Jon Darpónek dio asko aurreratu dela

Jon Darpón comenta que en atención

arreta goiztiarrean, baina gutxi ikusten dela. Protokolo bateratu bat egin beharko omen litzateke.

Lourdes Zurbanobeaskoetxeak aipamena egin dio arreta goiztiarrak 2012tik hona izandako bilakaerari. Bizkaiko Foru Aldundian dirulaguntzak ematen dituzte, eta haur gehienak Osasunetik datoz, Ebaluazio Taldeak azter ditzan.

Marian Olabarrietak aipatu duenez, arreta goiztiarreko bere gastua 450.000 eurotik 650.000 eurora igaro da 4 hilabetean. Igoera horren aurrean, arlo horretako gastua aztertzeko eskatu du.

Lide Amilibiak esan du berriro eskatuko direla gastuari buruzko datuak.

<u>Etxerik Gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategia</u>

Etxerik Gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategia (2018-2021) aurkeztu du Gizarte Politiketako sailburuordeak. Aurkezpenaren dokumentua erantsi da.

<u>Osabide eta e-rezeta, adinekoen eta desgaituen egoitzetan.</u>

Jarraian, Guil
lermo Viñegrak aurkeztu ditu Osabide egoitzetan eta e-rezeta, errezeta elektronikoa.

Oso zabalduta omen daude biak. 60ren bat egoitza falta omen dira ezartzeko, gehienak 40 ohetik beherakoak eta are ordenagailurik gabekoak.

Osakidetzaren PRESBIDE preskripzio farmazeutikoko sistema ia % 100ean dago ezarrita adinekoen egoitzetan. Era horretan, ia erabat desagertu dira paperezko errezetak, eta erakunde horietako egoiliar guztiek informatizaturik dute beren tratamendu aktiboa, segurtasun-arriskuak nabarmen murriztuz.

temprana se ha avanzado mucho, pero es algo poco visible. Apunta que habría que hacer un protocolo común.

Lourdes Zurbanobeaskoetxea comenta la evolución en atención temprana desde 2012. En la Diputación Foral de Bizkaia, dan ayudas económicas y la mayoría de niños y niñas son derivados desde Salud, para su estudio por el EVAT.

Marian Olabarrieta comenta que su gasto en atención temprana ha pasado de 450.000 euros a 650.000 euros en solo 4 meses. Pide que se estudie la cuestión del gasto en esta materia ante semejante incremento.

Lide Amilibia dice que se reiterará la petición de datos sobre gasto.

<u>Estrategia Vasca para Personas Sin Hogar</u>

La Viceconsejera de Políticas Sociales presenta la Estrategia Vasca para Personas Sin Hogar 2018-2021. Se adjunta documento de la presentación.

<u>Osabide y e-rezeta en residencias de personas mayores y personas con discapacidad.</u>

Acto seguido, Guillermo Viñegra presenta Osabide en residencias y e-rezeta, la receta electrónica.

Indica que ambas cuestiones están muy extendidas. Faltan unas 60 residencias sin implantación, la mayoría de menos de 40 camas y que incluso carecen de ordenador.

El sistema de prescripción farmacéutica de Osakidetza PRESBIDE está implantado prácticamente al 100% en residencias de personas mayores. De esta manera, prácticamente ha desparecido la utilización de recetas de papel y todos los y las residentes de estas instituciones tienen informatizado su tratamiento activo, reduciendo de manera significativa los riesgos de

seguridad.

**6. Kontseiluko presidentetza eta idazkaritza aldatzea.**

2018an Osasun Sailaren gain joango dira Kontseiluko presidentetza eta idazkaritza, eta presidente izango da Osasun sailburua, Jon Darpón.

**6. Cambio de presidencia y secretaría del Consejo.**

Se recuerda que el próximo año 2018 la presidencia y la secretaría del Consejo corresponderán al Departamento de Salud, asumiendo las funciones de Presidente el Consejero de Salud, Jon Darpón.

**7. Galde-eskeak.**

Jon Darpónek aipatu du Legebiltzarreko agerraldia egongo dela otsail aldera –ildo soziosanitario berriak aurkezteko–, eta diputatu nagusiak bertara gonbidatzea proposatu du. Dena dela, agerraldiaren aurretik ildoen aurkezpen publikoa egitea aurreikusten da, 2018ko urtarrilean.

Isabel Sánchez Roblesek finantzaketaren gaia ongi jorratzea proposatu du.

Presidenteak adierazi duenez, ildoei buruzko dokumentuaren 37. orrian aipatzen da gai hori adostu beharra, eta horretarako lantalde bat sortuko dela.

José Antonio de la Ricak dioenez, aitzinsolasa bakarrik falta da ildoen testuan. Hura, Jon Darpónen eskaturik, alde guztiek sinatuko dute.

Jorratzeko gai gehiago ez dagoenez, 18:08an amaitu da bilera.

**7. Ruegos y preguntas.**

Jon Darpón comenta que habrá comparecencia parlamentaria en torno a febrero para presentar las nuevas líneas sociosanitarias, y propone invitar a los diputados generales para que asistan al acto. En todo caso, la comparecencia irá precedida por la presentación pública de las líneas, prevista para enero de 2018.

Isabel Sánchez Robles propone preparar bien el tema de la financiación.

La Presidenta indica que en la página 37 del documento de las líneas se cita que habrá que consensuar ese tema y que se creará un grupo de trabajo al efecto.

José Antonio de la Rica señala que en el texto de las líneas falta únicamente el prólogo. Este, a petición de Jon Darpón, se firmará por todas las partes.

Sin otras cuestiones que tratar, la sesión concluye a las 18:08 horas.

IDAZKARIA / EL SECRETARIO

EMILIO GERMAN SOLA VALLOJERA - 14946571K

Firmado digitalmente por EMILIO GERMAN SOLA VALLOJERA - 14946571K
Fecha: 2020.02.21 15:08:06 +01'00'

Emilio Sola Ballojera

PRESIDENTEA / LA PRESIDENTA

Beatriz Artolazabal Albeniz